

Neoliberalismoak euskarari (I)

Gure herriaren kultur-asimilazio eta -ordezkatzeko prozesu luzea testuinguru kapitalista batean gertatzen ari da. Merkatu-ekonomiaren ezaugarriek eta irizpideek ere azaltzen dute euskarak jasandako gutxitzea, eta eragiten diote bere garapenari. Batetik, kontsumo-gizartearen logika honek ez duelako euskararen alde (aski) egin, oraingoz behintzat. Merkatuak kulturaren uniformizazioa bultzatzen du, errazago saltzeko, gainbalioa eta aberastasanak biderkatzeko. Lukurreriak hizkuntza nagusiak ederresten ditu, eta euskara gutxiesten du, nagusikeria hori naturalizatuz. Etnozidio kulturala errentagarria zaio. Gainera, euskaldunok ere hezurretaraino sartuak ditugu kontsumismoaren hedonismoa eta nartzisismoa. Handiak erakartzen gaitu, eta produktu arrotzen miresle eta neurrikerik gabeko kontsumitzaile bilakatuta gaude.

Bestetik, desarrollismo suntsitzai-leak lurraldea lego erraldoi bat bilakatu du, pertsonen ezikusiarrena eginez, paisaiak zementuz berdinduz, eta kultura eraitsiz. Aberasteko grina, etekina azkar metatzeko nahia, eta handikeria ditu ezaugarri. Pertsonak objektutzat ditu. Areago, ez die subjektu izaten uzten, boterea baitu oinarri, baita ja-



Zigor Etxeburua Urbizu

KONTSEILUKO TEKNIKARIA

@zetxeburua

Liberalismoak merkatuen desarautzea bultzatzen du, eta logika beretik, euskararen aldeko arautzea saihesten du. Areago, dugun arautzea simulatua dela esan daiteke

rreretan ere (nagusikeria), eta mende-kotasunak eragiten ditu, taktikoki eta zeharka. Euskaldunak enbarazu gara kapitalarentzat, kostutzat hartzen baitu gure eskubideak bermatzea eta gure kultura duintzen laguntzea. Gainera,

eskulan merketzat dituen migratzaileei ez die aitortzen kultura baten jabe izatea, eta ez die euskal kulturara sarbidea errazten.

Azkenik, gogoratu behar da liberalismoak merkatuen desarautzea bultzatzen duela, eta logika beretik, euskararen aldeko arautzea saihesten duela. Areago, dugun arautzea simulatua dela esan daiteke, ez baita ezartzen, sarri (kontratu publikoetan, kontsumo gaietan...). Gainera, liberalizazioa muturre-ra eramanez, zerbitzu ugari pribatizatu ditu administrazioak, eta horien euskalduntzea saihestu du, urte luzez. Bide beretik, kudeatzaileek eskatzen diete euskal sortzaileei negarrari utzi eta efizientziaren eta lehiakortasunaren parametroetan jardutea, egoera parekidea balitz bezala. Era berean, euskararen erabileraren normalizazioa uzten dute prozesu naturalaren eta norbanakoon arteko kudeaketaren gain, erakundeen egitekoei iskin eginez, eta hizkuntzaren izaera kolektiboa alboratuz.

Aipatu aldagai horien eragileak sistemaren zutoinak dira. Berriki, Allarteanek bere blogean EAEko Alderdi Popularra seinatu du, hizkuntza-liberalismoaren eredu gisa. Bada, nik beste batzuk ere sartuko nituzke ikuspegi horretan. Zerrendatuko ditugu? ■

 ARGIA

943 371 545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak

Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia.

Jarri publizitatea hemen